Estalitako jolas eta kirol eremuak, eta zehazki Lizardi kaleko Egape Ikastolari dagozkionak, gutxienez mekanikoki urez garbitu beharko lirarteke, urtean hiru aldiz. Kontuan izatea, gune hori kirol eta jai ospakizun askotarako erabiltzen dela, eskolako erabileraz kanpo.

4.16.- HUSTUBIDEAK, ESTOLDA ZULOAK, KANALETAK ETA ITURRIAK GARBITZEA

Hustubide, estolda-zulo, kanaletetan eta iturrietan pilatutako hondakinak bilduko dira, eskuz edo mekanikoki, une oro erabilgarri egon daitezten.

Garbiketa-lan hau behar den guztietan egingo da, eta hilean behin gutxienez. Arazo gehien sortzen diren lekuetan, behar bezainbeste aldiz.

Duten garrantziagatik, hustubideen, estolda-zuloen, kanaleten eta iturrien garbiketa-lanak areagotu egingo dira hosto-erorketaren garaian (udazkena...), eta libratu egingo dira ubideak hosto-pilaketarik sortuz gero. Behar izanez gero, berrantolatu egingo da hiri-garbiketako zerbitzua, hostoak egunetan pilatu ez daitezten.

Hustubideen, estolda-zuloen, kanaleten eta iturrien garbiketan sortutako hondakinak dagokion tratamendu-zentrora eramango dira, bildu eta berehala, eta ez debekatuta egongo da hondakin horien bide publikoan, paperontzietan... pilatuta uztea.

Garbiketa-zerbitzuaren hileko txostenak gorabehera, Udal Zerbitzu Teknikoari jakinaraziko

4.15.- LIMPIEZA DE PATIOS DE COLEGIOS Y FRONTONES

Comprende este servicio la limpieza, barrido, baldeo y fregado de los patios de juegos de los colegios públicos de titularidad municipal y frontones (no se incluye el frontón cubierto municipal situado en la calle Estación) de titularidad municipal y/o de uso público.

Se incluye la limpieza de los sumideros existentes en los patios y vaciado de papeleras.

En el caso de los patios de los colegios públicos estos deberán estar completamente limpios antes de la hora de inicio de las clases escolares.

Las zonas de juegos y deportivas cubiertas, y en concreto las que corresponden con la Ikastola Egape de la calle Lizardi mínimamente se deberán fregar por medios mecánicos tres veces al año. Considerar que este recinto se utiliza para múltiples acontecimientos deportivos y festivos fuera del uso escolar.

4.16.- LIMPIEZA DE SUMIDEROS, IMBORNALES, CANALETAS Y FUENTES

Este tipo de limpieza, que podrá ser manual o mecánica, consistirá en la extracción de los residuos depositados en los sumideros, imbornales, canaletas y fuentes, con el fin de que su funcionamiento sea en todo momento el más adecuado.

Esta limpieza se realizará siempre que las necesidades lo exijan y, como mínimo, una vez cada mes. En las zonas más problemáticas y conflictivas, tantas veces como haga falta.

En el periodo de acumulación de la caída de hojas (periodo otoñal, etc.) se intensificará la limpieza de sumideros, imbornales, canaletas y fuentes dada la importancia de los mismos, incluyendo el desatascado de los sumideros, imbornales, canaletas y fuentes, para que las hojas no se acumulen durante días; reorganizándose, si fuera necesario, el servicio de la limpieza urbana en este periodo.

Los residuos procedentes de la limpieza de sumideros, imbornales, canaletas y fuentes serán retirados al centro de tratamiento autorizado,



2016KO EKAINAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE JUNIO DE 2016

zaio zein hustubide eta estoldatan sortzen diren arazo gehien, zer konponketa egitea komeni den, etab.

Gainera, ur edangarria duten iturri publikoen hustubideak garbituko dira, lantalde hauek lanean diharduten lekuetan erabiltzen dituzten maiztasunez.

4.17.- UDAL SANEAMENDU SAREA GARBITZEA

Udal sareko hodi guztiak garbituko dira, presio handiko xurgatzaile-bulkatzaileen bitartez, honela xehatuta:

- a) Bisitagarri ez diren hodiak eta hodi biltzaile edo estoldak.
- b) Bisitagarri diren hodi biltzaileak.
- c) Bortexak.

Garbiketa maiztasuna, gutxienez, urtean behin izango da.

Udal saneamendu sareko instalazioetan buxaduraren bat sortzen den guztietan, buxada kentzeko lanak egingo dira Udal honentzako gainkosturik gabe eta gehienez, 2 orduko epean, buxaduraren jakinarazpena jaso ondoren.

Udal saneamendu sarean dauden bi bortexei dagokionez, Idiazabal kalean kokatutakoak, hilean behin garbituko dira gutxienez, eta astero aztertuko dira eta Udal Zerbitzuei horien egoerari buruzko informazioa emango da. Buxatuta baldin badaude, buxada kenduko da eta berehala garbituko dira.

Garbiketa lanak hauetara doituz egingo dira: Lan Arriskuen Prebentziorako Legean ezarritako xedapenei, Lan Arriskuen Prebentziorako Gida Eusko Jaurlaritzako estolderia sarearen mantenurako eta horretarako indarrean dagoen gainontzeko araudiari, kontrata esleipendunari dagokiolarik aurretik aipatutako Araudietako prebentzio eta babes neurriak hartzea (kutsagarrien

inmediatamente después de ser extraídos, prohibiéndose el acopio de estos residuos, bien en las vías públicas, en papeleras, etc.

Independientemente de los partes correspondientes del servicio, se dará cuenta a los Servicios Técnicos Municipales de las zonas o tramos que presenten una mayor frecuencia de obstrucción, acumulación de residuos, defectos constructivos, etc.

Asimismo, se procederá a la limpieza de los desagües de las fuentes públicas de agua potable con una frecuencia igual a la que presenten estos equipos en las zonas donde actúan.

4.17.- LIMPIEZA DE LA RED DE SANEAMIENTO MUNICIPAL.

Se limpiarán la totalidad de las conducciones de la red municipal mediante equipos aspiradores-impulsores de alta presión, desglosándolos de la siguiente manera:

- a) Tuberías y colectores o tajeas no visitables.
- b) Colectores visitables.
- c) Vortex.

La frecuencia de limpieza será como mínimo de una vez al año.

Siempre que surja algún atasco en las instalaciones de la red municipal de saneamiento, se acudirá a realizar el trabajo de desatasco sin sobrecoste alguno para este Ayuntamiento y en un plazo máximo de 2 horas, una vez recibida la comunicación del atasco.

En cuanto a los dos vortex existentes en la red de saneamiento municipal situados en la calle Idiazabal, su limpieza será mínimo mensual y semanalmente serán inspeccionados e informados los Servicios Municipales de su estado de conservación. En caso de encontrarse atascados serán desatascados y limpiados inmediatamente.

Los trabajos de limpieza se efectuarán ajustándose a las disposiciones establecidas en la Ley de Prevención de Riesgos Laborales, Guía para la Prevención de Riesgos Laborales en el mantenimiento de redes de alcantarillado del Gobierno Vasco y demás Normativa Vigente al efecto, correspondiendo a la contrata adjudicataria adoptar las medidas de prevención y protección



2016KO EKAINAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE JUNIO DE 2016

neurketak, aireztapena, banakako eta taldekako babesak, etab.).

Lizitatzailleek beren eskaintzetan erabili beharreko giza baliabideak eta bitarteko materialak ziurtatuko dituzte beren eskaintzetan, asteburu eta jai-egunetan buxadurak gertatzen badira, izango den laguntza-taldearekin batera eta harremanetarako telefono bat Udaltzaingoa eskura, kasu horietarako.

4.18.-ZAKARRONTZIAK GARBITZEA ETA HUSTUTZEA

Urnietako udalerriko paperontzi guztietako hondakinak bilduko dira (gaur egun dauden paperontziak eta etorkizunean jar litezkeenak). Gauza bera egingo da hautsontziekin edo zehazki zakarrontziak ez diren bestelako edukiontziekin ere, udal zerbitzuek jarri badituzte dagozkien hondakinak jasotzeko. Modu honetan jasotako hondakin-frakzio bakoitza dagozkion moduan tratatuko da. Gainera, paperontziak garbituko dira, kanpotik eta barrutik, eta pegatinak eta baimendu gabeko elementu guztiak erretiratu, pintaketak garbitu eta antzeko lanak egingo dira, hilabetean behin gutxienez.

Zakarrontziak hustu eta garbitzeko lan hau eskuzko erraztatzeaz arduratzen diren taldeek egingo dute, eta lantalde hauek lanean diharduten lekuetan erabiltzen dituzten maiztasunez hustuko dituzte hondakin guztiak.

Eskuzko erraztatzerik egiten ez den lekuetako zakarrontziak erraztatze mekanikoko taldeek hustuko dituzte, lantalde hauek lanean diharduten lekuetan erabiltzen dituzten maiztasunez, eta ezin izango dira paperontziak galtzada gainean hustu eta garbitzeko makinaren bidez jaso.

Enpresa esleipendunak egunero jakinaraziko dio Udal Zerbitzuari zein zakarrontzi berritu behar diren, zeintzuk dauden puskatuta edo desagertuta.

4.19. PINTAKETAK GARBITZEA ETA KARTELAK, PANKARTAK ETA ANTZERAKOAK

(mediciones de contaminantes, ventilación, protecciones individuales y colectivas, etc.), contempladas en las Normativas antes mencionadas.

Los licitadores justificarán en sus ofertas los medios humanos y materiales a emplear, así como el equipo a disponer de retén para casos de atascos en fines de semana y festivos y un número de teléfono de contacto, a disposición de los Servicios Municipales, para estos casos.

4.18.- LIMPIEZA Y VACIADO DE PAPELERAS

Consiste en la retirada de todos los residuos contenidos y dejados dentro de las cestas de las papeleras existentes y futuras instaladas en el término municipal de Urnieta. Se actuará de igual modo con ceniceros u otro tipo de contenedor que no sea precisamente una papeleras y hayan sido colocados por los servicios municipales para la recogida del residuo correspondiente. Cada fracción de residuo recogida de este modo será gestionada conforme a la misma. Este servicio comprende igualmente la limpieza exterior, interior e incluso la retirada de pegatinas, pintadas o similares que se fijan en las mismas y que no estén autorizadas, por lo menos una vez al mes.

Esta operación de limpieza y vaciado de papeleras y similares ha de ser realizada por los equipos de barrido manual, que procederán al vaciado de todos los desperdicios con una frecuencia igual a la que presenten estos equipos en las zonas donde actúan. Para el vaciado de las papeleras y similares en tramos donde no se realicen operaciones de barrido manual, estas labores las realizará el equipo destinado al barrido mecánico con una frecuencia igual a la que presenten estos equipos en las zonas donde actúan, no admitiéndose el vaciado de las papeleras a la calzada para su recogida por las máquinas barredoras.

El adjudicatario deberá notificar diariamente a los Servicios Municipales la situación de papeleras deficientes, rotas o hayan desaparecido que detecte

4.19.-LIMPIEZA DE PINTADAS Y RETIRADA DE CARTELES, PANCARTAS, BANDEROLAS, ETC

2016KO EKAINAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE JUNIO DE 2016

ERRETIRATZEA.

Pintaketan garbiketa bide publikoan dauden eraikin, horma, zoladura, hiri-altzari, haur-jolas, trafiko-seinale, markesina eta abarretan egingo da, izaera publikokoak edo bide publikoan dauden izaera pribatukoak. Eta, oro har, udalaren zerbitzu guztietan

Garbiketa-lan hau egitean, kontuan hartuko da beti zer materialez egingo dagoen margotutako elementua (harri naturala edo artifiziala, marmola, adreilua, burdina, egurra, etab.) eta zein produktu kimikoz eginak dauden pintaketak, eta hartara elementu horientzat kaltegarriak izango ez diren garbiketa-produktuak erabiliko dira.

Garbiketarako erabilitako material guztiak (pinturak, hondarrak, kaltzio-kentzaileak, etab.) enpresa esleipendunak jarriko ditu, baina udal-zerbitzu teknikoak adieraziko du zein produktu erabili kasu bakoitzean.

Kartelak erretiratzeari dagokionez, makina egokiak erabiliko dira, eta ez da eskulatu (altzairuzko eskuilak) edo hormak edo gainazalak kalte ditzakeen tresnekin harraskatuko.

Pankartak, banderolak eta antzekoak kentzean, baliabide egokiak erabiliko dira. Kontuz egingo dira lan horiek, kalterik egin gabe udal-ondasunei edo ondasun pribatuei.

Behin kartelak kenduta, inguru guztia garbituko da, eta garbiketa-lanetik sortutako paper eta hondakin guztiak jasoko dira.

Udalaren aginduz erretiratutako pankartak eta banderolak udalari entregatuko dizkio enpresa esleipendunak, gero jabeen itzultzeko ala suntsitzeko, udalak erabakitzen duenaren arabera.

Pintaketak garbitzeko eta kartelak, pankartak eta antzekoak erretiratzeko maiztasuna astean behingoa izango da gutxienez, eta giza baliabide eta baliabide material egokiak erabiliko dira horretarako.

Beharrezkoa izanez gero, graffitien aurkako produktuak erabiliko dira eraikin publikoen hormetan, esleipendunaren kontura.

4.20. –ZUHAITZ-TXORKOAK GARBITZEA

Zuhaitz-txorko ireki eta itxietan botatako

La limpieza de pintadas se ejecutará en todos los edificios, muros y paredes, pavimentos, mobiliario urbano, juegos infantiles, señales de tráfico, marquesinas, etc. de carácter público y/o privado que se encuentren en la vía pública. Y en general en todos los servicios del ayuntamiento.

Esta limpieza se efectuará teniendo en cuenta siempre, tanto el material del que están contruidos los elementos pintados, (piedra, natural o artificial, mármol, ladrillo, hierro, madera, etc.) como los productos químicos de que se componen las pintadas, empleándose productos adecuados y específicos que no dañen dichos elementos.

Todo el material auxiliar, pinturas, arenas, desincrustantes, descalcificantes, etc. serán por cuenta del adjudicatario, debiendo determinar en cada caso los servicios técnicos municipales el producto a emplear.

Por lo que respecta a la retirada de carteles, se utilizarán máquinas apropiadas, evitándose cepillar (cepillos de acero) y rascar con herramientas que puedan dañar los elementos en los que se encuentren adosados.

Para la retirada de pancartas y banderolas, se utilizarán los medios necesarios para dichos trabajos. Dichos trabajos serán efectuados de forma que no dañen los bienes municipales o privados que sirven de elementos de sustentación.

Una vez retirados los carteles se barrerá la zona próxima en la que se ha trabajado y se recogerán los papeles y residuos, producto de la limpieza.

Aquellas pancartas o banderolas retiradas y que haya sido ordenado por el Ayuntamiento serán entregados en el mismo por el adjudicatario para su posterior devolución a sus propietarios o hasta su eliminación, según órdenes municipales.

La frecuencia de la limpieza de pintadas, carteles, y retirada de pancartas y banderolas será, como mínimo, de un día por semana, con la inclusión de equipos y personal necesario para esta tarea.

En caso de ser necesario en las fachadas de los centros públicos se aplicarán productos anti-graffiti a cargo del adjudicatario

4.20.- LIMPIEZA DE ALCORQUES DE LOS ÁRBOLES

Esta operación consistirá en la retirada de

2016KO EKAINAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE JUNIO DE 2016

hondakinak bilduko dira (paperak, zigarrokinak, etab.), baina ez da lur berririk gehituko, lorezaintza-zerbitzuaren ardura baita.

Zuhaitz-txorko irekiak espaloia garbitzen den modu berean garbituko dira, eskuzko erraztatzean erabilitako maiztasun berberaz. Zuhaitz-txorko irekietako belarra erretiratzea kontrataren barnean sartzen da.

Espaloia soilik baliabide mekanikoz garbitzen denean, edo oinezkoentzako eremuak direnean, zuhaitz-txorkoen garbiketa astean behin egingo da txorko irekietan, eta 15 egunetik behin, itxietan.

Esleipendunak zuhaitz-txorkoetako gorozkiak eta abar jasoko ditu, eta txorkoak garbi edukitzeko betebeharra izango du.

4.21.-ANIMALIEN GOROZKIAK GARBITZEA ETA ERRETIRATZEA

Udalerriko galtzadak, espaloiak, pasealekuak, parkeak, oinezkoentzako eremuak... garbitzean, animalien gorozkiak jaso eta erretiratu egingo dira, eta eremu bakoitza garbitzeko ardura duen langilea edo lantaldea arduratuko da zeregin horretaz.

4.22.- GARBIKETA HOSTO ERORKETAREN GARAIAN

Hostoak udazkenean eta beharrezkoa den guztietan bilduko dira, eta giza baliabide eta baliabide material egokiak erabiliko dira horretarako, kontuan izanik lurrian pilatutako hosto-kantitatea.

Hosto-bilketako lanez gainera, hustubideen eta estolda-zuloen garbiketa areagotuko da, kontuan izanik hostoek halako azpiegituretan sortzen dituzten buxadurak.

Bildutako hostoak inausketa-frakzioztat hartuko dira, eta ez dira errefus gisa erabiliko, beraz dagokion moduan kudeatu beharko da. Inausketa-frakzioa Udalak ekarpen-punturik gertukoenean utzi beharko da eta beren izaeraren arabera kudeatuko dira gaikako bilketaren sistema orokorraren barruan.

4.23.- ZOLA-JUNTADURETAKO BELARRAK ETA LIRDINGA KENTZEA

desperdicios que se depositen en los alcorques (abiertos y cerrados), como papeles, colillas etc., no la reposición de tierra, que será tarea del servicio de jardinería.

Los alcorques abiertos se limpiarán como el resto de la acera y con su misma frecuencia que en el barrido manual. Quedará incluida en la contrata la extracción de hierba de los alcorques abiertos.

Cuando las aceras estén afectadas de un tratamiento exclusivamente mecánico, o se trate de zonas peatonales, la limpieza de alcorques se realizará una vez por semana en alcorques abiertos y una vez cada quince días en alcorques cerrados.

El adjudicatario deberá recoger los excrementos que se hallen en los alcorques, etc., siendo imprescindible el mantenimiento correcto de la limpieza de los alcorques en general

4.21.- LIMPIEZA Y RETIRADA DE EXCREMENTOS DE ANIMALES

Se incluye su recogida, limpieza y retirada dentro de las operaciones de barrido en todas las calzadas, aceras, paseos, parques, áreas peatonales, etc., del municipio, correspondiendo por tanto su realización al trabajador o brigada a los cuales se asigne la zona de limpieza.

4.22.- LIMPIEZA EN EPOCA DE CAIDA DE LA HOJA

La recogida de la hoja se realizará en la época otoñal y/o cuando el servicio lo requiera, empleando los medios técnicos y humanos apropiados al gran volumen de hojas que se acumulan en el municipio.

Además de los trabajos propios de recogida de la hoja, se intensificará la limpieza de sumideros, imbornales, canaletas y fuentes, habida cuenta de la importancia que en la obstrucción de los mismos tienen en estos residuos.

Las hojas que se recojan se retirarán como fracción de poda y no de rechazo, por lo que tendrán que ser gestionados de acuerdo a su naturaleza. Esta fracción de poda serán trasladados a los puntos de aportación más cercanos y serán gestionados según su naturaleza dentro del sistema general de recogida selectiva.

4.23.- ELIMINACION DE HIERBAS EN JUNTAS DE PAVIMENTO Y VERDÍN

2016KO EKAINAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE JUNIO DE 2016

Beharrezkoa denean, zola-junturetako belarrak kentzeko lanak areagotu egingo dira, herbiziden bitartez. Esleipendunak beharrezko bitartekoak izango dira lan horiek egiteko. Enpresa esleipendunak baliabide egokiak erabiliko ditu lan horretarako, eta kontuan hartuko da irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuak ezarritakoa (produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorrari buruzkoa). Hala, Errege Dekretua betetzeko egin behar diren lan guztiez arduratuko da esleipenduna.

Lirdingaren garbiketari dagokionez, behar den guztietan egingo da, behar diren baliabide guztiak erabilita. Leku batzuk aproposak izan ohi dira lirdinga sortzeko, eta arreta berezia jarriko da toki horietan.

4.24.- OLIO, GANTZ, ERREGAI ORBANAK...KENTZEA

Urtean bi aldiz gutxienez, eta Zerbitzuaren Zuzendaritzak agintzen duen guztietan, ohiko garbiketa-lanetan (erraztatzea, urarekin garbitzea) desagertzen ez diren olio, gantz eta antzeko produktuen orbanak garbituko dira.

Lan hauen baitan egongo da ibilgailuen aparkaleku-eremuak ere garbitzea, eta, bereziki, taxi- eta autobus-geltokiak, zerbitzu publiko motorizatuak, eta udal-teknikarien iritziz era honetako garbiketa behar duten espaloiak.

Horrez gainera, aparteko lan gisa, istripuz sortutako olio- edo gantz-orbanak ere garbituko dira, Udala Zerbitzu Teknikoek eskatuta beti.

Era honetako orbanak garbitzeko, produktu eta sistema egokiak erabiliko dira. Lehenbizi eskuilaz garbitu eta ondoren presiopeko ura erabiliko da. Bestalde, bide publikoan istripuak eragin ditzaketen gantz- edo erregai-orbanak berehala garbituko dira.

Horretarako, enpresa lizitatuak jarduketako protokolo bat ezarri beharko dute ekintzetako bakoitzarentzat, erantzun-denbora zehaztuta sortutako abisuaren aurrean, jarduketaren garrantziaren, larritasunaren edo presaren arabera, batez ere bide eta espaloietako orbanetarako.

Cuando sea necesario, se intensificarán los trabajos de eliminación de hierbas de las juntas de pavimentos mediante herbicida. El adjudicatario dispondrá de los medios necesarios para realización de dichas labores. Para ello, se atenderá a lo dispuesto en el Real Decreto 1311/2012, de 14 de septiembre, por el que se establece el marco de actuación para conseguir un uso sostenible de los productos fitosanitarios, siendo el adjudicatario el que realice todas las labores necesarias para cumplir dicho Real Decreto.

En el caso del verdín, la limpieza de éste se realizará siempre que sea necesario y para ello se utilizarán todos los medios necesarios, y se tendrá especial cuidado con las zonas que se conozca que tienen especial predisposición.

4.24.- ELIMINACION DE MANCHAS DE ACEITE, GRASAS, CARBURANTES, ETC.

Con una periodicidad mínima de dos veces al año y además, siempre y cuando lo ordenen los Servicios Técnicos Municipales, se procederá a una limpieza de las manchas de aceite, grasa, carburantes, pinturas, etc., que normalmente no desaparecen en las operaciones de barrido y baldeo.

Estos trabajos abarcarán también las zonas de aparcamientos de vehículos, y principalmente las paradas de taxis, de autobuses, los servicios públicos motorizados y las aceras en aquellos puntos que a criterio de los técnicos municipales fuera necesario.

Asimismo, con carácter extraordinario, y siempre a requerimiento de los Servicios Técnicos Municipales, se procederá a la limpieza de manchas de aceite o grasa producidas de forma accidental.

Para su realización se utilizarán los productos de limpieza adecuados, procediéndose a la limpieza con cepillo y posterior aclarado con agua a presión.

Por otra parte se procederá con la máxima urgencia a limpiar las manchas de aceite o combustible que puedan causar accidentes en la vía pública. Para ello las empresas licitadoras deberán de proponer un protocolo de actuación para cada una de estas acciones, con los tiempos de respuesta ante el aviso generado, tiempos de respuesta en función de la importancia de la actuación, de la gravedad o urgencia de la misma, etc., sobre todo para las manchas de aceites en viales y aceras.

2016KO EKAINAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE JUNIO DE 2016

4.25. –GARBIKETA HERRIKO JAIETAN

Enpresa esleipendunak garbiketa-lan bereziak egingo ditu udalerriko jaietan, auzoetako jaiak barne. Garbiketa-lanak ekitaldiak amaitu eta berehala hasiko dira, edo hala dagokionean, beharren arabera. Igande eta jai-egunak barne.

Zehatza izan gabe, garbiketa berezi honen gutxi gorabeherako lekuak eta datak honakoak izango dira:

- Santa Kruz jaiak: maiatzaren 3a eta hurrengo asteburua. Lekua: Azkorte Gurutze Santuaren ermita.
- Gazte jaiak. Maiatza bukaera edo ekaina hasiera. Lekua: Herrigunea.
- San Mielgo herriko jaiak. Irailaren 29a, bi asteburu barne. Tokia: herrigunea.
- Xoxokako jaiak. urriko 2. astea. Goiburu auzoa.

4.26.- GARBIKETA ELKARRETARATZE, AZOKA, KALE-SALMENTETAN, ETAB.

Arrazoi hauengatik eguneroko jarduerak sortu ohi duena baino hondakin-kantitate handiagoak sortzen dituzten eremuak garbitzea biltzen du:

Bide publikoan egiten diren manifestazio edo ekitaldiak.
Kale salmentako merkatuak eta azoka txikiak.
Hauteskunde kanpainak.
Azokak, kirol ekintzak, herri kontzentrazioak, etab.

Gabonetako kabalगतak eta inauterietako desfileak.
Udlean, Bake Epaitegian edo inguruetan ospatzen diren ezkontzak eta izaera pribatuko ekitaldiak,

Beste gertakari batzuk.

Bide publikoa garbituko da, urarekin garbituta eta hondakinak edukiontzietan bilduta, ekitaldi bakoitza amaitu eta berehala, edo hala dagokionean, beharren arabera. Igande eta jai-egunak barne.

Beharrezkoa izanez gero, eta kontrataren kontura, hondakinak jasotzeko edukiontzi lagungarriak jarriko dira. Gutxienez, hondakin mota bakoitzeko (errefusa, ontziak, organikoa) 12 unitate eskainiko dira, bakoitza 120 litro ingurukoa.

4.25.- LIMPIEZA EN FIESTAS

El adjudicatario deberá realizar las limpiezas especiales con motivo de todas las fiestas del municipio, incluidas las de los diferentes barrios. Los trabajos comenzarán inmediatamente después de terminados los actos, o cuando proceda, según necesidades. Incluido domingos y festivos.

A modo orientativo y sin pretensión de ser exhaustivo, la limpieza se desarrollará en los siguientes lugares y fechas:

- Festividad de Santa Cruz. 3 de mayo y fin de semana posterior. Lugar: Ermita Santo Cristo de Azkorte.
- Fiestas de la Juventud. Finales de mayo o primeros de junio. Lugar: Casco urbano.
- Fiestas patronales de San Miguel. 29 de septiembre incluyendo dos fines de semana. Lugar: casco urbano.
- Fiestas de Xoxoka. 2º semana de octubre. Barrio de Goiburu.

4.26.- LIMPIEZA DE CONCENTRACIONES, FERIAS Y MERCADILLOS DE VENTA AMBULANTE, ETC

Contempla esta tarea la limpieza de aquellas zonas que presentan índices elevados de suciedad, por encima del que corresponde por la lógica actividad ciudadana, con motivo de:

Manifestaciones o actos en la vía pública.

Mercados y mercadillos de venta ambulante.

Campañas electorales.

Ferias, eventos deportivos, concentraciones populares, etc.

Cabalगतas navideñas y desfiles de carnaval.

Bodas o eventos de carácter privado celebrados en la casa Consistorial, en el Juzgado de Paz o inmediateces.

Otros acontecimientos.

Se procederá a realizar la limpieza de estas zonas de la vía pública, mediante baldeo y la recogida de restos en contenedores, inmediatamente después de terminada la celebración de cada uno de estos actos o cuando proceda según las necesidades. Incluido en domingos y días festivos.

En caso de ser necesario y a cuenta de la contrata se proporcionaran contenedores de apoyo para la retirada de los residuos. Minimamente se ofertarán 12 unidades de cada tipo de residuo (rechazo, envases, orgánico) de una capacidad aproximada a



2016KO EKAINAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE JUNIO DE 2016

Kontuan izan beharreko gertakari esanguratsuenak:

- Urteko ostiral guztietan San Juan Plazan goizez azoka-txikia.
- Erregeen kabalgata. Urtarrila
- Inauteriak. Martxo
- Mendiko kirol proba San Juan Plazatik. Maiatzean

- San Juan sua. Ekaina.
- Santo Tomas azoka. Abendua.
- Gabonetako ospakizunak. Abendua.

4.27. –ALDIZKAKO ZERBITZUAK ETA/EDO ALDI BATERAKOAK

Ezaugarri bereziak dituzten zerbitzuak dira, programazio zailekoak urteko garbiketa-planaren barnean (urtaro-faktoreagatik, ezbehar batek eragindakoak izateagatik edo tokian tokiko arazoengatik), eta unean uneko zerbitzuaren egiazko beharren arabera gauzatu behar dira.

Zerbitzu hau eskaintzeko, enpresa esleipendunaren baliabide orokorrak erabiliko dira, eta horrek ez du eraginik izango eskaintzen dituen gainerako zerbitzuetan.

Zeregin honetan sartzen dira:

- Bide publikoan utzitako materialak jasotzea. Udal Zerbitzu Teknikoen jarraibideekin, publikoan abandonatutako materialak jaso eta dagokion lekura garraiatuko dira: zabortegira, dagokion erakunde kudeatzailearengana edo udal-biltegira.

- Hildako animaliak jaso eta kentzea. Enpresa esleipendunari dagokio zerbitzu hau eskaintzea, eta udal-zerbitzuaren deia jaso bezain pronto egingo du.

- Larrialdiak eta antzeko ezohiko gertakariak gertatzen direnean egin beharreko lanak dira. Hondamendiak edo antzekoak gertatuz gero egin beharreko lanak dira. Egoera hauetan, udal-agintariei egoki iruditzen zaizkien baliabide guztiak jarriko ditu esleipendunak udalaren esku.

4.28.- GARBIKETA ZERBITZUA IGANDE ETA JAI

los 120 litros cada uno.

Acontecimientos más significativos a tener en cuenta:

- Todos los viernes del año mercadillo en la Plaza San Juan en horario matinal.
- Cabalgata de reyes. Enero
- Carnavales. Marzo
- Prueba atlética de montaña desde Plaza San Juan. Mayo
- Hoguera de San Juan. Junio.
- Feria de santo Tomas. Diciembre.
- Festejos navideños. Diciembre.

4.27.- SERVICIOS PERIÓDICOS Y/O TEMPORALES

Las características especiales de estos servicios, cuya programación obedece a circunstancias estacionales, accidentales y locales, que hacen difícil su programación anual dentro del plan de limpieza, debiéndose contemplar su ejecución en función de las necesidades reales del servicio en cada momento.

La prestación de este servicio se programará con la utilización de los medios generales de la empresa adjudicataria, sin que los restantes servicios queden deteriorados.

En este conjunto quedan comprendidos los siguientes servicios:

- Retirada de materiales abandonados en la vía pública. Siguiendo las instrucciones de los Servicios Técnicos Municipales se procederá a la carga y transporte a vertedero, gestor, o depósito municipal de los materiales abandonados en la vía pública.
- Recogida y retirada de animales muertos. Corresponde al adjudicatario la obligación de realizar este servicio procediendo a su ejecución inmediatamente después de habersele comunicado por los servicios municipales la necesidad de su realización.
- Actuación en casos de emergencia y cualquier otra situación excepcional. Se refiere a los trabajos a realizar en el supuesto de producirse catástrofes o hechos similares. El adjudicatario pondrá en estos casos a disposición municipal la totalidad de los medios que el Ayuntamiento considere oportunos.

4.28.- SERVICIO DE LIMPIEZA EN DOMINGOS Y



2016KO EKAINAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE JUNIO DE 2016

EGUNETAN.

Baldintza-orri hauetako garbiketako 1. maila dagokio, eta horren jarduketa eremua 4.1. atalean eta dagokion planoan adierazita dago.

Igande edo jai-egun batean egin beharreko zeregin nagusiak, eta ezohiko gertakarien batekin bat ez datozenean, makina bidezko edo eskuzko erraztatzeak dira, eta salbuespenez, espaloiak eta galtzadak urez garbitzea, mekanikoki edo eskuz.

Barne egongo litzateke, espaloiak eta galtzadak urarekin makina bidez edo eskuz garbitzea, jaietan eta ekitaldi berezietan.

Jarraiko jai egunekin bat etorri gero, igandea jai eguntzat hartuko da, eta hurrengo jai egunean zerbitzu arrunta egingo da.

Bereziki erreparatuko zaie zakarrontziei, beren hustuketari begira, gazte-taldeak elkartzen diren lekuetan, askari-eremuetan, Egape ikastolako jolas-eremu estalian...

4.29. LARRIALDI KASUETAN ETA EGOERA BEREZIEGAN EGIN BEHARREKO JARDUKETAK: ELURTEAK, IZOZTEAK, ZIKLOGENESI LEHERKORRA, UHOLDEAK, SUTEAK, HAIZETE HANDIAK, ETAB.

Ezaugarri bereziak dituzten zerbitzuak dira, programazio zailekoak urteko garbiketa-planaren barnean (urtaro faktoreagatik, ezohiko gertakariengatik eta tokian tokiko arazoengatik) eta unean uneko zerbitzuaren egiazko beharren arabera gauzatu behar dira.

Zerbitzu horiek eskainitako bitarteko orokorrak erabiliz programatuko da, gainerako zerbitzuak kaltetu ez daitezen saiaturik.

Horiek gauzatzeko, enpresa lizitatuak beharrezkoa ikusten badute bitarteko bereziak erabiltzea, espresuki adieraziko dute beren eskaintzetan.

Elurteak, ziklogenesi leherkorak edo uholdeak gertatzen badira, egin beharreko zerbitzuak eta eremua, eta gainerako zehaztapenak, udal zerbitzu teknikoak ezarritakoak izango dira, beharrezko dituzten bitartekak eskura izango dituztelarik.

FESTIVOS.

Correspondería al Nivel 1 de limpieza exigido en estos pliegos cuyo ámbito de actuación es el indicado en el apartado 4.1. y plano correspondiente.

Las tareas principales a ejecutar en un domingo o día festivo y siempre que no coincidan con algún acontecimiento especial serían las correspondientes generalmente al barrido mecánico o manual, y excepcionalmente baldeo mecánico o manual de aceras y calzadas.

Incluiría trabajos de baldeo manual o mecánico de calzadas y aceras, en fiestas y eventos especiales.

De coincidir dos festivos consecutivos, se respetará como festivo el domingo, realizándose el servicio normal el otro festivo.

Se pondrá especial énfasis en el estado de las papeleras de cara a vigilar su vaciado en estas fechas, así como en las zonas en las que se den aglomeraciones de cuadrillas de jóvenes, uso intensivo de zonas de merienda en parques, zona cubierta de juegos en la Ikastola Egape, etc.

4.29.- ACTUACIONES A REALIZAR EN CASOS DE EMERGENCIA Y SITUACION EXCEPCIONAL: HELADAS, NEVADAS, CICLOGENESIS EXPLOSIVA, NUNDACIONES, INCENDIO, FUERTES VIENTOS, ETC.

Dadas las características especiales de estos servicios cuya programación obedece a problemas estacionales, accidentales y locales, que hacen difícil su programación anual dentro del plan de limpieza, su ejecución se debe contemplar en función de las necesidades reales del servicio en cada momento.

La prestación de estos servicios se programará con la utilización de los medios generales ofertados, procurando que los restantes servicios no queden sensiblemente deteriorados.

Si para llevarlos a cabo las empresas licitadoras considerasen necesaria la utilización de medios especiales lo indicarán expresamente en sus ofertas.

En caso de producirse nevadas, ciclogénesis explosivas o inundaciones, etc. los servicios a realizar y el ámbito, así como el resto de determinaciones, serán los que se establezcan por el servicio técnico municipal, que tendrá a su

2016KO EKAINAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE JUNIO DE 2016

Elurteak edo izozte handiak gertatuz gero, egin beharreko zerbitzuak hauek izango dira, orokorrean:

Izozte handiak gertatzen direnean, urgaria isurtzea malda handiko espaloietan eta aireko eta lurrazpiko pasabideetan. Elurteetan, bideak zabaltzea espaloietan eta oinezkoentzako igarobideetan, ubideak zabaltzea zintarrien ondoan, etab.

Urgaria udalak jarriko du, eta udal-zerbitzuaren instalazioetan jasoko du esleipendunak. Bitarteko mekanikoak kontrataren kargu izango dira: gatz zabaltzaileak, palak, elurra kentzeko makinak eta antzekoak.

Kasu hauetan, enpresa esleipendunak lan bereziak egingo ditu: hala nola elurra edo izotza urtzeko produktuak zabaltzea, elurra kentzea... Lan hauek guztiak udal-teknikarien zuzendaritzapean egingo dira.

4.30. HIRI-GARBIKETAN SORTUTAKO HONDAKINAK BILTzea ETA GARRAIATzea

Garbiketa mota desberdinetatik eratorritako hondakin guztiak ekarpen-punturik gertukoenean utzi beharko dira eta beren izaeraren arabera kudeatuko dira gaikako bilketaren sistema orokorraren barruan.

5.- IKUSKATZEKO ETA ZUZENTZEKO GAITASUNA

5.1.- Esleipendunak beharrezko jarduera guztiak egingo ditu Hiri-garbiketako Zerbitzu Orokorra egoki ematen dela ziurtatzeko, plegu honetan jasotako edukiaren arabera, sortzen diren gorabeherak bideratuz eta konponduz.

5.2. - Esleipendunak Garbiketa Plan bat aurkeztu beharko dio Administrazio kontratatzaileari, hauek agertuz: kudeaketa eta administrazio lanak, zerbitzuan ibili ohi diren langileen kualifikazioa eta iraunkortasuna. Gainera, Zerbitzua garatzeko software eragile bat aurkeztu beharko du, Esleipendunaren eta Administrazioaren arteko

disposición la totalidad de los medios que se requieran.

En caso de producirse nevadas o fuertes heladas los servicios a realizar serán en líneas generales:

En caso de fuertes heladas se procederá a esparcir fundente en las aceras de pendiente pronunciada y en los pasos elevados y soterrados. En caso de nevadas se dirigirán los trabajos a la apertura de sendas en pasos de peatones y aceras, apertura de regatas junto a los bordillos, etc.

El fundente será suministrado por el Ayuntamiento y el adjudicatario lo recogerá en las instalaciones de la brigada municipal. Los medios mecánicos como esparcidores de sal, palas, vehículo quitanieves y similares serán a cargo de la contrata.

En estos casos los medios adscritos a este servicio por la empresa adjudicataria, realizarán trabajos específicos tales como esparcido de productos para la fusión de nieve o hielo, quitanieves, etc. Estos trabajos se realizarán bajo las directrices de los técnicos municipales.

4.30.- RECOGIDA Y TRANSPORTE DE LOS RESIDUOS PROCEDENTES DE LAS OPERACIONES DE LIMPIEZA URBANA.

Todos los residuos procedentes de los diferentes tipos de limpieza serán trasladados a los puntos de aportación más cercanos y serán gestionados según su naturaleza dentro del sistema general de recogida selectiva.

5.- FACULTAD DE INSPECCION Y DIRECCION.

5.1.- La empresa adjudicataria realizará todas las operaciones necesarias para asegurar una correcta prestación del Servicio General de Limpieza Urbana, según el contenido contemplado en el presente pliego, canalizando y resolviendo las incidencias que se presenten.

5.2.- La contrata deberá presentar un Plan de Limpieza a la Administración contratante, referente al servicio general de limpieza urbana, donde refleje las tareas de gestión y administración, así como la cualificación y permanencia del personal destinado habitualmente al servicio. Además, deberá presentar un software operativo para el desarrollo del Servicio,



2016KO EKAINAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE JUNIO DE 2016

komunikazioaren oinarri izango dena: Zerbitzuaren garapena, gorabeheren trataera, kalitatearen zainketa.

5.3.- Urrietako Udalak Kontratuaren Arduradun funtzioak beteko dituen pertsona bat izendatuko du, hiri-garbitaketa zerbitzuaren jarraipena eta kontrola egiteko, eta lanpostu horretarako, Sektore Publikoko Kontratu gaitan indarrean dagoen legediak aurreikusitakoak, SPKLko 41. artikuluekin bat etorritz.

5.4.- Enpresa esleipendunak "Zerbitzu Arduradun" bat izendatuko du, hiri-garbitaketa zerbitzuko langileen jardura antolatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko den pertsona, zerbitzua egoki eman dadin. Era berean, langile horiek egindako zereginak ikuskatu beharko ditu, sortzen diren gorabeherari aurre egin, eta Kontratuko Arduradun funtzioak betetzen dituen pertsonarekin beharrezko eta etengabeko kontaktua mantendu beharko du, garbitaketa lanak ondo egin daitezela. Administrazioaren eskakizun arrazoitua badago, enpresa esleipendunak behin betiko ordezkatu du Zerbitzuko Arduradun funtzioak betetzen dituen pertsona.

5.5.- Administrazioak, gainera, edozein momentutan egoki deritzon laguntza tekniko eskatu ahal izango du, esleipendunak dituen betebeharrak ondo betetzen direla, kalitate maila eta lanaren zuzentasuna egiaztatzeko.

5.6.- Lortu beharreko helburuak lortzeko, Urrietako herritarrek eskatutako laguntzak mantentzeari dagokionez, beharrezkoa ikusten da esleipendunaren eta Administrazioaren arteko etengabeko harreman estua, eta maila teknikoari dagokionez, garbi mantendu beharreko instalazioen aldizkako ikuskaritza.

6.- ZERBITZUAREN KALITATEA.

Kontratuaren helburua betetzen dela egiaztatzeko zerbitzua eskaintzeko kalitate kontrol sistema ezarri da.

Kontrol hori ondorengo puntuetan oinarritzen da:

- Oharrak behar diren garaian.
- Kalitate mailen kalifikazioa.

Hilero, Kontratuko Arduradun funtzioak betetzen dituenak (administrazio kontratatzaileak

que sea la base de comunicación entre Adjudicataria y Administración: desarrollo del Servicio, tratamiento de incidencias, operativa de calidad.

5.3.- Por el Ayuntamiento de URNIETA se designará una persona que ejerza las funciones de Responsable del Contrato, para el seguimiento y control en la prestación de este servicio de limpieza urbana, así como las previstas para esta figura por la legislación vigente en materia de Contratos del Sector Público, de conformidad con el artículo 41 de la LCSP.

5.4.- Por la empresa adjudicataria se nombrará un/una "Encargado/a del Servicio", que será la persona responsable de organizar y coordinar la actividad del personal de limpieza urbana y de la red de saneamiento para la correcta prestación del servicio, así como deberá supervisar las tareas realizadas por dicho personal, afrontar las incidencias que se produzcan y mantener el contacto necesario y permanente con la persona que ejerza las funciones de Responsable del Contrato para el correcto desarrollo de las tareas de limpieza. A requerimiento motivado de la Administración, la empresa adjudicataria sustituirá de forma definitiva a la persona que ejerza las funciones de Encargado/a del Servicio.

5.5.- La Administración podrá, además, requerir en cualquier momento la asistencia técnica que considere oportuna para verificar el correcto cumplimiento de las obligaciones a que está sometido el adjudicatario, y el nivel de calidad y corrección del trabajo.

5.6.- En razón de los objetivos a conseguir y mantener las prestaciones demandadas por la ciudadanía urnietarra, se considera necesaria la permanente y estrecha colaboración entre la contrata y la Administración. Y en cuanto a nivel técnico, la inspección periódica de los ámbitos territoriales a mantener limpios.

6.- CALIDAD DEL SERVICIO.

Para verificar el cumplimiento del objeto del contrato se establece un sistema de control de calidad de la prestación del servicio.

Este control estará basado en los puntos siguientes:

- Observaciones puntuales.
- Calificación de niveles de calidad.

Mensualmente, en el día y hora que determine quién ejerza las funciones de Responsable del Contrato (designado por la administración contratante),

2016KO EKAINAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE JUNIO DE 2016

izendatutakoa) zehaztutako egun eta orduan, eta hala dagokionean, enpresa esleipendunaren ordezkari entzunda, behaketa ibilbide bat egingo da Kudeatzailearekin batera, eta ausazko metodoz ikuskatu beharreko eremua zehaztuko da.

Ibilbide horietan eta eremu zehatz bakoitzerako datu hauen Kalitate Parte jasoko da idatziz:

a) Garbiketa maila.

b) Antzemandako anomaliak eta, hala badagokio, langile arduraduna.

c) Zerbitzu arduradunak eskatutako zuzenketa neurriak.

Behaketa horietatik Plegu honi dagozkion eskaini beharreko zerbitzuen Kalitate Indizea deduzituko da, eskala honekin bat etorritz:

OSO ONA:

Ikuskatutako eremua oso egoera onean dago, orban, paper, hondakin, hautsik gabe eta zikinkeria adierazten duten bestelako indizerik gabe. Saneamenduari dagokionez, urak bikain isurtzen dira, legarra, hondarra edo hondakin organikoak pilatu gabe.

Balioa: 10

ONA:

Aztergai den eremuak egoera orokor onargarria du, baina aurreko maila lortu gabe. Gauza bera saneamendu sarerako.

Balioa: 7

GUTXI GORABEHERAKOA:

Eremuei garbiketa egoera ez da nahikoa, edozein pertsonak hauteman ditzakeen orban, hauts, belar edo bestelako zikinkeria arrastoekin. Erdi buxatutako estolda-zuloak, kuxatiletan geratutako legar eta hondarrak daude, baina buxatuta egotera iritsi gabe.

Balioa: 5

Neurri zuzentzaile jakinak aplikatu beharko dira.

TXARRA:

Aztertzen diren eremuek, orokorrean, itxura txarra dute, nahikoa garbitu ez direlako seinale eta aztarnekin eta saneamendu sarean jariakortasun arazoekin.

Balioa: 2

Kasu honetan izaera orokorreko neurri zuzentzaileak hartuko dira.

OSO TXARRA:

Ordena eta garbiketa txarra da eztabaidarik gabe azalera guztian, eta kasu honetan beharrezkoa da aldaketa bortitza, langileena, zein garbiketa prozedurarena. Saneamendu sarea buxatua.

realizará una ruta de observaciones conjuntamente con el Gestor, y mediante método aleatorio acordado se determinará la zona a inspeccionar.

En estas rutas se anotará en el Parte de Calidad los siguientes datos:

a) Nivel de limpieza.

b) Anomalías observadas y, en su caso, operario responsable.

c) Medidas de corrección solicitadas por los responsables del Servicio.

Del conjunto de estas observaciones se deducirá el Índice de Calidad de Limpieza de acuerdo con la siguiente escala:

MUY BUENO:

